



2022 OTS. 06

## Astigarragak ezezkoa eman dio Sagardoetxea zabaltzeko Udalaren proposamenari

Sagardoetxearen etorkizunari buruzko herri-galdeketa egin dute igande honetan Astigarragan, eta herritarren gehiengoak erabaki du ez babestea Udalak hainbat eragileekin ondutako proposamena; ez da, beraz, sagardogintzaren museoaren lekua eta jarduna handituko.

NAIZ



Herritarrak Sagardoetxearen etorkizunari buruzko herri galdeketa botoa ematen. (Jon URBE | FOKU)

Sagardoetxearen etorkizunari buruz erabakitzeko herri galdeketaren eguna izan da igande hau Astigarragan, eta herritarren gehiengoak, 453 botorekin (%63,53) erabaki du Udalak herriko hainbat eragilerekin batera ondutako proposamena atzera botatzea. 235 pertsonak (%35,48) baiezkoa bozkatu du, eta bostek boto zuria eman dute. Guztira, 713 pertsonak hartu du parte herri galdeketa, 16 urtetik gorako hautesle eroldaren %12,04k.

«Ados al zaude Sagardoetxearen etorkizunerako proposamenarekin?» izan da Astigarragako bizilagunek erantzun duten galdera.

Ondoko puntuek osatzen zuten [Astigarragako Udalak herriko hainbat eragilerekin elkarlanean egindako hausnarketa prozesu baten emaitzak](#): Sagardoetxearen proiektu berriak Astigarraga sagardogintzaren eta sagarraren kulturaren erdigunean jarriko du eta herri eta eskualde izaera eta proiektzioa gaituko ditu; bertako ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatuko ditu, eta askotariko bisitariak erakarriko ditu; Sagardoetxearen proiektua landuko da sagardogile eta sagarraren sektorearekin, beste administrazio publikoekin, herritarrekin eta eragileekin; egoitza berria Kontxa Etxeberria lorategiaren eta sagastiaren artean kokatuko da, hein handi batean, lurpean; Sagardoetxe berriaren finantzaketan Astigarragako Udalak eta beste administrazioek parte hartuko dute; Sagardoetxe berriaren proiektua estrategikoa da Astigarragarentzat eta herriaren ondarea balioan jarriko du.

20.00etan bukatu da botoen kontaketa, eta Udalak konfirmatu du ezezkoa gailendu dela.



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

---



## Klikatuenak

---



**Meloni: una violación y dos melones para extender el viejo «Dios, patria y familia»**



**Xabier Silveirak ez du txapelketa nagusian parte hartuko**



### **Fallece a los 66 años Jon Odriozola, columnista y exrepresaliado político**



### **La memoria de Negu Gorriak llena el Velódromo con 'Black is Beltza II: Ainhoa' 🔑**



### **Artículo conjunto de los directores de la prensa vasca en relación a Pablo González**